

noaua

**Inauterietako
egitaraua, prest**

**Euskaraldia-n
murgiltzeko
bilera deitu dute**

**Hitzartu diruz
laguntzeko kanpaina,
azken txanpan**

Mari Karmen Anza:

**“Espetxera bisitan oso pozik zoaz,
baina itzulera gogorra izaten da”**

Kenia



943 373 613

IRTEERA MAIATZEAN
Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

noaqua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaqua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**

eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkidetza: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaqua.eus

LASER DIODO IRAUNKORRA

LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:
(prezioak sesio bakoitzeko)

EMAKUMEETAN:

Hanka osoak+ oinbularrak+ behatzak 149€ /
Hanka erdiak+oinbularrak+behatzak 99€
Izter erdiak 99€ Besoak + hatzak 79€ / Besurreak + hatzak 69€
Kokotsa + ezpaina 39€ / Besapeak 39€
Besapeak + Ingleak (bikini) 79€ / Besapeak + Ingleak (brasildarrak)
89€ Besapeak + Ingleak (osoa) 99€

GIZONETAN:

Besapeak 39€ / Ingleak 49€ / Begitartea 19€
Sorbalda + besaburuak 129€
Sabelaldea + toraxa 153€
Hanka osoak 194€ / Hanka erdiak 122€
Besoak 99€ / Besurreak 89€
Ipurmasailak 79€



Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

Albiste iruditari

Udarregiren omenezko bertso saioan aritu zen Mugartegi

Urtarrilaren 18an zendu zen Jon Mugartegi bertsolari bizkaitarra. 1966an, Udarregiren omenezko kultur astean hartu zuen parte. Xalbador, Lazkao Txiki eta Uztapiderekin batera aritu zen kantari Usurbilen. Orduko hartan, Basarrik egin zituen gai-jartzaile lanak. Arturo Delgadoren argazki hau da saio haren lekuko.

Ezkerretik hasita, bigarrena da Mugartegi. Argazkian erreparatzen baduzue, Joxan Artze aurkituko duzue. Basarri eta Uztapideren artean, ezkerreko eskua aho parean duela. Joxan Artze aritu zen antolatzaile lanetan.

Astebeteko epean, hortaz, bi artista handi joan dira.

Bizkaiko txapelkun izan zen 1960an Mugartegi (Berriatua, 1933-2018) zortzi aldiz iritsi zen Bizkaiko Bertsolari



Ezkerretik hasita, Xalbador, Mugartegi, Lazkao Txiki, Basarri, Joxan Artze (eskua aho parean duela) eta Uztapide. Argazkia 1966koa da. Egilea: Arturo Delgado, Kutxa Fototeka.

Txapelketako finalera. 1960ko txapela berak irabazi zuen. 1964an eta 1966an txapelkun orde izan zen. Euskal Herri-

ko Txapelketan, hirutan izan zen finalista Mugartegi: 1960an, 1965ean eta 1967an.

Laburrean

Otsailean arratsaldez irekiko dute KzGunea

Urtarrilaren 31ra arte arratsaldez (16:00-20:00) egongo da KzGunea zabalik. Otsailaren 1ean dator ordu aldaketa, hurrengo hilabetean goizez, 9:00-13:00 artean irekiko baitute. Informazio gehiago: Kale Nagusia, 37 943 023 684

Jai Batzordearen lehen bilera, otsailaren 6an

Usurbilgo festak prestatzen hasteko lehen hitzordua deitu du Jai Batzordeak otsailaren 6rako 18:00etan Potxoenean. Festa egunak finkatu eta jaietarako lehen proposamenak bildu nahi dira hitzordu horretan. Norbanako zein eragileei zuzenduriko bilera irekia izango da.

1975ean jaiotako bazkaria

1975ean jaiotako bazkaria antolatuko dute sagardotegian. Martxoaren 10ean batuko dira, larunbatarekin. Izena emateko deitu edo bestela mezua whatsapp bidez edo mezulari zerbitzutik bidali, zenbaki honetara: 608 045 479 (Igor).

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendurako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea: Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietia, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herra!



Imanol Ubeda

Taldekako lana

Joxan Artzeren heriotzak zur eta lur utzi gintuen. Ez genekien hain gaixo zegoenik eta albisteak ezustean harrapatu gintuen.

Errigorako kanpainan hartzen zuen parte eta NOAUA!ra etorri ohi zen saski bila. Aitzakia horrekin, honetaz eta hartaz hitz egiteko aukera izaten genuen. Faltan botako ditugu bere bisitak, eta bisita haietan izaten genituen hizketalditxoak.

Artzeren heriotzaren berri

izan eta segituan hasi ginen balorazio eske. Aldizkari bat osatzeko lana hartzen dugunok, erlojuaren aurka aritu ohi gara beti. Entrega-epe jakin bat dago eta hura bete behar. Banatzai-leak garaiz hasi daitezen lanean; aldizkaria etxe eta baserri guttiara berandu gabe iritsi dadin. Asteroko kontua da hori.

Balorazio batzuk sare sozial-etatik hartu genituen. Baina gehientsuenak gure deiari erantzunez idatzi ziren. Aurreko aste-ko gehigarri berezian faltako da

batzen bat. Seguru. Esan bezala, erlojuaren kontra ibiltzeak hori du. Beti geratuko dela zerbait erdizka edo guztiz osatu gabe.

Gure eskaerarekin bat egin zutenek sekulako prestutasuna azaldu zuten. Hori izan zen ederrera. Eta denbora gutxian, idatzi zoragarriak igorri zizkiguten. Batzuk, gainera, lan handiak hartu zituzten. Dolumin-mezuak, iritziak, analisiak, oroitzapenak, poemak,... Denen ekarpenekin erretratu sentitua osatu genuen. Oparoa eta zabala. Plurala. Bere

ibilbide artistikoaren eta bere izaera pertsonalaren adierazle.

Aurreko astean NOAUA!k plazaratu zuen erretratu kolektiboa ez da oharkabea pasa. Askok izan dira Joxan Artzeren omenezko gehigarri bereziarengatik zoriontzera hurbildu zaizkigunak. Meritua ordea, ez da gurea. NOAUA!ren proposamena onartu zutena baizik. Lan talde osoaren izenean, eskerririk asko! Guk baliabideak baino ez genituen ipini.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Ika-mika

Imaginarioa

Imaginarioa moldatzen garen irudikapen sozialen eremua da eta egunerokotasuneko egoeretan, eta hartu beharreko erabakietan baldintzatzen gaituena da. Imaginarioa kolektiboa da, baina neurri handi batean, pertsonaren inkonjizientetik egiten du lan.

Euskal Herrian funtzionatzen duen kolonizazio/asimilazio egoeran, Imaginarioa konkista interesa duen toki estrategikoa da. Egunerokotasunean bere baldintzak ezartzen ditu, adibidez: Emakumearen independentziak soldatapeko enplegu bat lortzetik soilik pasa behar

du? Emakumearen Imaginarioak, egun indarrean dagoen eredu kapitalistaren onarpen osoa eta absolutua du? Ez al da posible eredu ekonomiko bat garatzea burujabe izateko? Eta proposatzen zaion independentzia (soldata) eta benetako burujabetza ez al da berdina?

Hezkuntzaren eremuan, zein da gurasoen Imaginarioa? Eta hezkuntzaren profesionalena? Gure seme-alabek, noiz konturatzen dira helduen Imaginarioak sortutako heziketa-sistema batetik pasa direla eta duen helburu nagusia soldatapeko lanpostu bat lortzea dela? Gaur

egun badakigu bide horren amaieran ez dagoela pertsonaren independentzia (2017an 10 kontratuetatik bakarra izan da mugagabea).

Gure herrian lan egiten duten politikoen (agerian edo ez) Imaginarioa, gaur egun gizartean nagusitzen diren kontrol eta botere nahiaren baloreez kutsatuta egongo ote da?

Azken hamarkadetan, Euskal Herrian izan ditugun ezkerreko erreferente politikoak atzerrikoak izan dira; Argelia, Sobietar Batasuna, Kuba, Nikaragua, Venezuela... Europa mailan ama-lerroko erreferen-

te kultural propioak mantentzen dituen azkeneko herria da Euskal Herria. Hala nola, Auzolana, Batzarra, Komunala eta Pireneoko eskubideak.

Eta aldaketa garai honetan, atzera begiratuko bagenu, gure Imaginarioa gai izango litzake pertsona burujabez osaturiko gizartea irudikatzen?

Albert Nenniren "Relato del colonizado" liburua lagungarria izan daiteke gure Imaginarioa kolonizatua dagoen edo ez hausnartzeko, konturatzeko eta egiaztatzeko.

Gabriel Valin.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Erraustegiaren aurkako mendi martxara

Usurbildik abiatzeko deia

Erraustegiaren goi-tentsioko linearen proiektua ezagutzeko larunbaterako antolatu den mendi martxara joateko, Usurbildik abiatzeko deia egin da. Hilaren 27an aipatu moduan, goizeko 9:15ean frontoian biltzeko gonbita luzatu da. Gero bertatik kotxez Lasarte-Oriara joateko. Han, goizeko 10:00etan Okendo plazatik abiatuko da Azkor-te ermitarantz oinez, herritar zutabeetako bat. Beste herritar zutabe bana abiatuko da Andoain, Urnieta eta Hernanitik.

Erraustegia hornituko duen goi-tentsioko linea berria eraikitzaera doaz. Proiektu honen xehetasunak ezagutzeko aukera izango da, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak urtarrilaren 27an Azkorterera antolatu duen mendi martxan. Goi-tentsioko linea berri hau



Usurbildarrek Lasarte-Oriako zutabearekin batera osatuko dute mendi-martxa.

HITZORDUA

“Larunbatean, 9:15ean frontoian biltzeko gonbita luzatu dute. Gero bertatik Lasarte-Oriara joateko kotxez”

nondik igaroko den bertatik bertara ikusteko aukera izango da. Erraustegiari ezetz esateko

aukera berri bat ere izango dela nabarmendu dute deitzaileek. “Izan ere, erraustegiak kalte egiten die pertsonen osasunari eta ingurumenari, birziklatzearen eta ekonomia zirkularraren bidean aurrera egitea oztopatzen du, eta sekulako zuloa egiten du gaurko zein biharko gipuzkoarren poltsikoan”.

Ohar bidez, proiektuaren zenbait xehetasun aurrera-

tu dituzte. Batetik, goi-tentsioko linea berriak eskualdea zeharkatuko duela; Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria eta Zubietako nekazal lur eta basoak. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak helarazitako ondoko irudian ikus dezakezue proiektuak kaltetuko duen ingurunea. “Linea osoan, batz besteko 40 metroko zabaleran, zuhaitzak moztu egingo dira, eta ezin izango da berririk landatu”, zehaztu dute. Begi bistakoa da beraz ingurumenean izan dezakeen eragina.

Urtarrilak 27, larunbata

Irteerak Azkorterera:

■ 09:15 Usurbilgo frontoian biltzeko deia. Handik kotxez Lasarte-Oriara. 10:00etan Okendo plazatik abiatuko den zutabearekin bat egingo da.

■ 10:00 Lasarte-Oriako Okendo plazatik eta Andoaingo Goiko Plazatik.

■ 10:30 Urnietako Zaldungititik eta Hernaniko Gudarien Plazatik.

■ 11:30 Proiektuari buruzko informazioa eskainiko da Azkor-teko ermitan.

■ Ondoren, Lasarte-Oriara ibilbidea.

■ 13:00 Azken ekitaldia Lasarte-Oriako Okendo plazan.

Deitzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

Ingurumen eraginaren baimenaren zain

Proiektua zertan den ere zehaztu dute. “Une honetan proiektua Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren Ingurumen Eraginaren Deklarazioaren zain dago. Behin tramite hori gaindituta, deklarazioa jendaurrean jarri beharko da eta helegiteak jartzeko tartea zabalduko da. Ondoren, Industria Sailera joango litzateke proiektua eta hark baimendu ostean, lur desjabetzeak eta eraikuntza lanak

hasiko lirateke. Obra Iberdrolak egin eta kudeatuko luke”.

Honatx Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak proiektuari lotuta plazaratu dituen zenbaki gehiago:

■ 132 kilovoltetako potentzia izango du.

■ Urtean 160.000 megawatt sortzeko gaitasuna.

■ Soilik erraustegia hornitzeko eraiki nahi da.

■ Linearen luzeera: 5.422 me-

tro.

■ Linearen “ibilbidea”: erraustegia eraikiko den gunetik Urnieta eta Hernani arteko mugatik gertu, A-15 autobide ondoraino. “Han, Santa Barbara azpitik Usurbildik datorren goi tentsioko linearekin bat egingo luke”.

■ 50 metro karratuko lur eremua okupatuko luketen 30-36 metro arteko 21 dorre eraiki nahi dituzte.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Erraustegiko langileen esplotazio

Begi bistakoa denez, erraustegiaren eraikitze lanak abiada bizian doaz bai, baina langileak esplotatzearen bizkar. Hala salatu zuen beste behin ELA sindikatuko ordezkariak batek, urtarrilaren 17an Gipuzkoako Batzar Nagusietan egin zuen agerraldian. Igor San Jose eta Josu Galarraga ELA-ko kideak EAJ, EHBildu, PSE, Ahal Dugu-Podemos eta PP alderdietako batzarkideekin bildu ziren.

Izaera publikoa duten Gipuzkoako obra nagusietan, tartean Zubietako erraustegian, baina baita Txomin-Eneako etxebizitzetan, Deskargako obretan, nahiz Abiadura Handiko Trena (AHT) zein Anoeta futbol zelaiko lanetan ere langileen lan baldintzak urratzen direla salatu zuten. Ez dela eraikuntzako lan hitzarmena aplikatzen, “ezta gutxieneko lan baldintza duinak” ere, “nabaria dela prekaritatea eta iruzurra Gipuzkoan eraikuntza sektorean”.

Langileen egoera ahula

Obra guztiotan, langileen lan baldintzak oso antzekoak direla nabarmendu zuten. Proiektu



Sindikatuak dienez, ez da lan hitzarmena aplikatzen “ezta gutxieneko lan baldintza duinak ere”.

ELA

“Azkar doaz lanak, bai. Langileek asteko zazpi egunetan lan egitearen bizkar”

guztiok langileak esplotatuz eraikitzen ari direla. Kasu askotan migranteak dira langileok, etorkizun hobe baten bila gure artera etorriak. Sarritan ez dute ezagutzen non lan egiten duten, bizi duten esplotazio egoera salatu ezinik sentitzen dira asko. Norabide horretan

pausoren bat emanez gero kalera ateratzeko mehatxupean bizi dira.

Azpikratzen menpe

Kontratatzaileei halako lan merkatua izatea interesatzen zaiela salatzen du ELA-k, “bai baitakite langileok ez direla antolatzen edo ezin dutela salatu”. Sindikatu gisa, dagokiena egiten ari direla diote. “Gure lana haiekin egotea da, haiek antolatzea eta haiek beldurratzen salatzen ez dutena salatzea”, zioten Batzar Nagusietako bilkuran.

Egitasmo guztion atzean,

azpikratuta berak daudela gogorarazi zieten batzarkideei. Erraustegia jarri zuten horren adibide gisa. Lotsagarritzat jotzen du ELA-k, “guztia azpikratatzen duten enpresei esleitu” izan den Zubietan gainean eraikitzen ari diren hondakinen tratamendu planta. Diputatu batzuei entzuna omen diote nola esan izan duten, erraustegiko lanak mar-txa onean, oso azkar doazela. “Azkar, bai” zioten ELA-ko kideek Batzar Nagusietan, “langileek asteko zazpi egunetan lan egitearen bizkar”.

“Mobilizazioak eta salaketak ugarituko ditugu”

Aski dela, horrela ezin dugula jarraitu zioen aipatu sindikatuak azken aldiran sarritan, baina ELA sindikatuko ordezkariak Batzar Nagusietan ziotenez, “badirudi ez dela ezer gertatzen, badirudi gezurra esaten dugula baina beti frogatu egiten dugu”. Eta behin baino gehiagotan azpimarratu izan dute, bildutako frogak eta salaketak mahai gainean jarri izan dituztenean, enpresa edo auzitegiek arrazoi eman izan dietela.

Berriki erraustegiko enpresa eraikitzaileekin egin duten bilkuran, otsaila hasierara arteko epea eman die sindikatuak egoera hau guztia bideratzeko. Otsaileko lehen astean enpresek biltzekoak dira berriki. Langileen egoera konpontzen ez bada, ez dute baztertzeko obrak geldiaraztea. Argi zioten Batzar Nagusietan: “Ez gara gelditutako langileen lan baldintza duinak lortu arte. Mobilizazio eta salaketak ugarituko ditugu”, iragarri zuten.

Erraustegiko langileen lan-baldintzak

■ Asteko 7 egunetan lan egiten dute.

■ Astelehenetik larunbatera 11 orduko lan egunak izaten dituzte. Igandeetan, 7-8 ordukoak.

■ Badira 27 egunez segidan, jai egunik gabe lan egin izan duen langilerik.

■ Ordu estra bakoitzeko 8-9 euro kobratzen dute. Gipuzkoako hitzarmena beteko balitz, 25,95 euro kobratu

behar luketeela dio ELA sindikatuak.

■ Hilabete batean 105 ordu estra egitera heldu dira. Legearen ikuspuntutik, urtean 80 ordu estra baino gehiago ezin dira egin.

■ Dietarik ez dute.

■ Gipuzkoako hitzarmenak finkatutakoaren azpitik, %60 gutxiago kobratzen dute.

■ Ez dute jai egutegirik. Opor egunak noiz izango dituzten jakin ezin izaten dira.

egoera salatu du ELA-k

ELA: "Lotsagarria da gertatzen ari dena"

Eskuartearen dituzten frogekin eta agerian utzi zuten errealtate ukaezin honen aurrean, ohartarazpen argia egin zien ELA-k EAJ, EHBildu, PSE, Ahal Dugu-Podemos eta PP alderdietako batzarkideei: "Lotsagarria da gertatzen ari dena eta geratu beharra dago. ELA sindikatuan prekaritatearen eta iruzurraren aurka gaude. Alde kokatzen bazarete, gu aurrez aurre izango gaituzue".

Galdera argia luzatu zieten batzarkideei. "Erakundeek asko dute esateko. Zuek zer egingo duzue errealtate hau aldatzeko?".

Xabier Ezeizabarrena (EAJ): "Pertzepzio desberdinak egon daitezke"

ELA-k bost obra publikoetan diharduten langileen lan baldintzak salatu arren, Bidegi eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari (GHK) lotutako bi obrekiko erantzukizuna agertu zuen bereziki EAJ-ko ordezkariak, Foru Aldundiak esleitutako proiektuak direlako biak; Deskargakoa eta Zubietako erraustegia. Sindikatuko ordezkariak emandako informazioa egitasmoetan arduradutenei helarazteko konpromisoa hartu zuen Ezeizabarrenak.

Halere, neurri batean garrantzia kendu zien ELA-k eginitako salaketek. Irregularitasun larriak salatu dituztela, baina "pertzepzio desberdinak egon daitezkeela" zioen Ezeizabarrenak. "Obra publikoetako langileen balorazio orokorra egiten duzue" eta "nabardurak zehaztu beharra ikusi du, "bestela badirudi, langileen ehuneko ehuna dagoela egoera prekario eta ilegalean".

Judit Garcia (EHBildu): "Erakundeek dagokie langileen lan baldintzak defendatzea"



ELAko kideek agerraldia egin zuten urtarrilaren 17an Batzar Nagusietan. Argazkia, artxibokoa.

ELA

"Prekarietatea eta iruzurraren alde kokatzen bazarete, aurrez aurre izango gaituzue"

ELA-ren lekukotzaren gordin-tasuna nabarmentzearekin batera, "alarma guztiak piztu dituzue" adierazi zuen EHBilduren batzarkideak. Mila milioi eurotako obra hauetan etekin ekonomiko baxerik ez dela lehenesten salatu zuen, eta "ez da onargarria". Oso larritzat jo zuen, "administrazioak obra publiko hauek edozein baldintzatan aurrera eraman ahal izatea, kasu honetan langileen kontura".

Bestaldera begiratzen duten erakundeek duten erantzukizuna gogorarazi zuen. "Gutxiengo legala ere ez da betetzen ari". Nahiko diru ez dela bideratzen zioen, "gehiegikeria hauen jarraipena egitera eta langileen eskubideak bermatzera". Argi zioen, "horretarako ez dago inolako jarraipen, aurrekonturik. Milaka milioi euroko inbertsioak izan arren".

Obra hauek Gipuzkoaren garapenerako proiektu estrategikotzat jotzen dituzte agintean diren alderdiek, baina "estrategikoak zertarako, zeinentzako? Ez enplegu duina sortzeko, lurralde oreka ekonomiko sus-

tatzeko, baizik eta prekarietatea erabat zabaltzeko".

Ezinbestekotzat jotzen du EHBilduk, kontratu publikoetan klausula sozialak txertatu eta betearaztea, baita "azpikontratazioa arautu eta mugatzea" ere. Gogorarazi zuenez, langileen lan baldintzak bermatzen dituen eta eraginkortzat jo dituen bi foru arau ditu Gipuzkoak, aurreko legegintzaldian onarturikoak. Arauok betearaztea exijitzen segitzeko asmoa azaldu du EHBilduk. "Legeak ahalbideratzen du langileen lan baldintzak defendatzea erakundeek aldetik eta erakundeek dagokie hori egitea", nahiz horretarako borondate falta sumatzen duen.

Monica Mora

(Ahal Dugu-Podemos): "Obraren exekuzioa beste edozein interesen gainetik nagusitzen da"

ELA-k mahai gainean jarritako egoera oso larri eta kezagarritzat jo zuen Ahal Dugu-Podemos. "Ez da lan hitzarmena betetzen ezta gutxieneko legalak ere". Langileek explotazio egoerok salatzen duten beldurra nabarmendu zuen. Proiektuok ez langileak ezta herrialdea ere ez dutela errespetatzen zioen Monica Morak. "Argi geratzen zaigu, lan baldintza hauek obra gehienetan errepikatzen direla". Bere esanetan, "obraren exekuzioa bes-

te edozein interesen gainetik nagusitzen da".

Egoera honen aurrean, prebentzioan eragin beharra dagoela nabarmen du, neurriak hartzeko prestasuna adieraztearekin batera. "Prest gaude erantzukizunak hartzeko. Kontratazio mota hauetarako kontrol eta jarraipen neurriak tratatuko ditugu". Honez gain, espero du, "bakoitzak dagokion ardurarekin bere gain hartzea eta horrelako agerraldiak benetan aldatetarako motibagarriak izatea".

Mikel Antxon Arrizabalaga (PSE): "Egoera hau aldatzeko proposamen praktikorik baduzue?"

Foru Aldundian agintean den alderdietako baten, PSE-ren ordezkariak ELA sindikatuari, "egoera hau aldatzeko proposamen praktikorik baduzue?", galdetu zion, Aldundia "lan ikuskaritza" ez dela gogoraztearekin batera. Foru Aldundiak berak esleitutako obraren exekuzioa kontrolatzea zaila dela adierazi zuen PSE-ko kideak.

Juan Carlos Cano (PP): "Lan ikuskaritzak ere errealtate hau onartu badu, egokitu egin beharko da"

Udalari, Gipuzkoa, EAE eta estatu mailako erakundeak inplikaturik egonik, gutxienez udal, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzarekin batera bildu eta adostasunera heltzea ahalbideratu duen elkargune bat egotea defendatu zuen Juan Carlos Canok. "Adierazten ari zareten errealtatea modu integral batean ikusgarri egingo duen mahairen bat osatu beharra dago", azpimarratu zuen.

Are gehiago, errealtate hau lan ikuskaritzak ere onartu duela ikusirik. "Lan ikuskaritzak ere errealtate hau onartu badu, egokitu beharko da", zioen Canok.

Euskal preso eta senideek,

Bera elkarrizketatzerakoan ohikoa bihurtu zaion 1.200 kilometroko joan etorria egiteko gogotsu zen. Gogotsu, urtea bete berri duen Xuarekin, alaba Olatz Lasagabaster eta haren bikote lagun Patxi Urangarekin Valentziako Picassent espetxean elkartzeko, haurraren urtemuga eta onik daudela ospatzeko. Igaro berri dutena urte gogorra izan baita hirukotearentzat, baita Olatzen ama eta Xuaren amona Mari Karmen Anzarentzat ere. Euskal preso eta senideei aplikatzen zaizkien salbuespenezko legeen eraginez, hamaika bidegabekeriei aurre egin beharrean aurkitzen dira, Mari Karmenek NOAUA!ri lerrootan azaldu dionez.



Euskal preso eta senideei aplikatzen zaizkien salbuespenezko legeen eraginez, hamaika bidegabekeriei aurre egin beharrean aurkitzen dira, halaxe adierazi digu Mari Karmen Anzak.

NOAUA! Zer moduz dago Xua?

Mari Karmen Anza: Oso polita. Espetxetik atera eta kalean paseoan goazenean, eserita doa. Nekatzen denean begiratzen dizu, eta ez badiozu heltzen negarrez hasten da. Segituan beso artean hartzen dut, ez baitut sufritzerik nahi. Nahikoa badute.

Urtea bete berri du espetxean.

Guraso eta senideontzat ere urtemuga berezia izango zen?

Oso berezia bai, gurasoak oso pozik daude, urte gogorra izan baita. Xua jaio zen egun berean, Patxiren aitona hil zen. Gero nirea gertatu zen...

Nola oroitzen duzu biloba ezagutu zenuen unea?

Emozio handiz. Zoragarria izan zen, alaba haurrarekin ikusita poz ikaragarria sentitu nuen. Ondo sentitzen nintzela esan arren, Olatz ondoezik nengoela jabetu zen. Laguntza eskatu eta gurgildun aulkian larrialdi zerbitzuetara eraman ninduten eta bertan ingresatu ninduten. Alaba malkotan oroitzen dut.

MARI KARMEN ANZA

“Orain zorionez gauzak hobeto doaz.

Umea polita, sorgin txiki ederra egina dago.

Eta bera ikuste hutsak indar handia ematen du”

Valentziako ospitalean egon zinen ingresatua hilabetez. Etxetik ia 600 kilometrorra. Dispersioaren beste ondorioetako bat.

Bai. Nire anai arrebak joan ziren. Anaiak itzuli beharra izan zuten, ahizpa han nirekin geratu zen hilabete osoan. Nire amak 91 urte ditu eta hemen zaintzen ari ginen. Ama zaintzeko genuen langilea ni ingresatua egon nintzen hilabetean amarekin geratu zen. Ahizpa nirekin, oso erabaki zail eta gogorrak hartzen. Pentsa nure alabarentzat zer zen egoera hura. Erditu berritan, eta bere ama ZIU.

Eta Olatzek ezin zu bisitatu.

Olatz behin eraman zuten ni ikustera. Bera han zegoela jabetu nintzen, ze erropa zerraman ere oroitzen dut. Baina egun haren ostean, berriz ere okerrera egin nuen. Olatzek nik esandako hitzei heltzen omen zien. Berak “ama aurrera e!” esan zidan eta nik noski baietz erantzun nion. Berak horri heltzen zion nik aurrera egingo nuela ziurtatzeko. Ez dut askorik oroitzen garai hartaz. Hilabete beranduago Donostia ospitalera ekarri ninduten anbulantzian. Gero etxera. Pixkanaka sendatzen joan nintzen.

Tarte horretan gainera, Patxi 3 aste igaro behar izan zituen Xua ezagutu arte.

M. K. A. 22 egun igaro ziren. Pentsa, Alacanteko Foncalent espetxean zegoen, emaztea erditu berritan, Xuak ez zuen ezagutzen, amaginarreba ZIU. Ez zuen informazio askorik, nire ahizpak eta bere aitak emandakoa. Desastre samarra izan zen guztia.

Udaberri aldera ‘egonkortu’ zen egoera.

Hala da, eta orain zorionez gauzak hobeto doaz. Umea polita, sorgin txiki ederra egina dago. Eta bera ikuste hutsak indar handia ematen du.

Ostiral honetan, elkarretaratze berezia

Gogoan izan, Xuaren urtebetetzea tarteko, elkarretaratze berezia deitu du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak, ostiral honetarako (urtarrilak 26) 20:00etan Mikel Laboa plazan.



Ohi bezala, 20:00etan elkartuko dira, Mikel Laboa plazan.

hamaika zigor erantsi

NOAUA! Espetxe barruan, Olatz Xuarekin bizi da 24 orduz eta Patxik baimena eskatu behar du hirurak batera egoteko?

Mari Karmen Anza: Xua Olatz-ekin dago egun osoz. Patxirekin egoteko astearteetan 40 minutu dituzte, 40 minutu ostiraletan kanpotik bisitan doazenekin egoteko, ordu eta erdiko bis familiarra eta hiru ordu eta erdiko elkarbizitza bisa hilabetean. 80 minutu astero, ordu eta erdi gehi hiru ordu eta erdi, hilabetean. Berarentzat gogorra da. Olatz eta Xua gaixo egon berri dira. Biak nola zeuden Patxik, Olatzek guri eginiko telefono deien bidez jakiten zuen. Olatzek esandakoaren berri gero guk ematen genion Patxiri telefonoz. Halere hau beti hala izan da, ez orain gaixo egon direlako.

Zein da haiekin senideok duen hartuemana?

Beraiek bost minutuko zortzi dei egin ditzakete astean. Olatzek niri astelehen, asteazken, ostegun, larunbat eta igandean deitzen dit. Astearteetan eta ostiraletan kanpoko jendearen



“Nik esan nahi diedan guztia apuntatua izaten dut aurrez zerrenda batean”.

MARI KARMEN ANZA

“Bisitara oso zoriontsu zoaz, baina itzulera gogorra da zeren zu etxera zatoz, baina beraiek han utzita”

bisita izaten dute. Bisita nola joan zaien kontatzeko Patxik astearteetan deitzen dit, eta ostiraletan ere deitzen dit, normalki, asteburuan baita. Jende gehiago ere bada deitzeko, Patxiren aita,

lagunak... Telefono deiak ere partekatu beharrak daude.

Antolatu beharra, denek denekin hitz egin ahal izateko.

Antolatu beharra dago, ez baita denbora asko. Zenbait egunetan telefono deia zertxobait luzeagoa izaten da. Baina beste egun batzuetan ez da ezertarako denborarik izaten. Nik esan nahi diedan guztia apuntatua izaten dut aurrez zerrenda batean. Gaitasun harriarriak ikasten dira halako egoeretan.

Bisitekin ere antzekoa gertatuko zaizue. Nola prestatzen duzue bisita bat?

Hilabete bakoitza hartzen dugu, nor joan daitekeen esaten goaz. Orain familia bakarrik goazenez, gure artean adosten dugu. Astelehenero ostiraletarako bisita eskatzen dugu. Bisita ordua zehazten duzu eta norekin nahi duzun bisita. Orain biak batera ateratzen direnez ez dago arazorik. Txandakatzen goaz.

Bisitarako bidaia nolako da?

Bisitara oso zoriontsu zoaz, baina itzulera gogorra da ze zu etxera zatoz, baina beraiek han utzita. Nik beti bisita egun batean eta bisa hurrengo egunean izaten dut. Agian txorakeria izango da, baina hartara bi egunetan ikusi ahal ditut, eta desberdina da. Orain gainera Xua ateratzeko, Olatzek Xua entregatu behar dit eta nik han, Espetxeen Erakundearen ematen didaten paper bat sinatu behar dut. Xua bueltan ematen diot gero Olatzi. Bisa ez badut ere, une horretan Olatz ikusi ahal dut.

“280.000 bat kilometro egingo nituela kalkulatzeko”

Zenbat kilometro egin ote dituzu urteotan?

Lehenbizi Avila eta Madrilerara, gero Alacantera, Avilara berriz... eta orain Valentziara. Guztira, 280.000 bat kilometro egingo nituela kalkulatzeko. Neure ibilgailuarekin 240.000 bat kilometro egingo nituen. Honez gain, zenbaitetan beste preso batzuen senideekin joan izan naiz. Kilometro asko dira. Pentsa, hemendik Alacanterako joan etorria soilik 1.500 kilometro izaten ziren, Valentziarako bidaia 1.200 kilometrokoa da.

Eta bidean, arrisku ugari?

Askok. Bisita orduaren arabera goizaldean abiatu izan gara edo han lo egin izan dugu. Bisita ordua iluntzean bada han lo eginda itzuli izan naiz. Gasolina, autopistak, kotxearen desgastea, zure desgaste emozionala, hotela, otorduak... Ezin dut kalkulatu zenbat diru izan daitekeen, baina dirutza da. Bestalde, hemen egongo balira gainera, Zaballan edo Iruñean, goizean joan, Xua hartu, Usurbila ekarri eta hemen egun osoz egongo ginen, jendea ezagutzen joan. Bere birramonak ezagutu zitzaizkeen. Patxiren amona eta nire amak ez

dute Xua ezagutzen.

Senide askok espetxe funtzionarioen tratua salatzen izan dute. Zuen kasuan nolako izan da?

Picassenten katxeatzen saiatu izan dira. Foncalentera joaten nintzen bakoitzean katxeoa izaten nuen. Katxeoarekin ados zaudela dioen papera sinatzea eskatzen dizute. Nik esaten nien ez nengoela ados, beraiek orduan badakizu... Badakit ez badut sinatzen ez nautela pasatzen utziko, beraz sinatu egiten dut. Baina ez nago konforme. Behin ezezkua

esan nuen. Komun batean sartu zidaten, ia botaka egin nuen. Inoiz ez didate arropa kenduarazi, baina badakit badela arropa kenduarazi dien jendea. Gogoan dut Avilan, erabaki zuten katxeatzen ez baziguten ez ginela sartuko eta nahiko denbora egon ginen bisita gabe. Behin Patxi bisitatzera joan Foncalentera eta bisitarik ez nuela eskatu esan zidaten, eta ez zekitela sartzetik izango ote nuen. Han ordu erdi zain eta azkenean sartzen uzten dizute, noski aurrez eskatua izanda bisita. Horrelako hamaika bizipen.

“2020ko urtarrilaren 19an Xuak espetxetik atera behar du”

NOAUA! Bi urte barru, aldaketarik ez bada, Xuak espetxetik atera behar du. Zer egin erabakia duzue.

Mari Karmen Anza: 2020ko urtarrilaren 19an Xuak espetxetik atera behar du. Nirekin bizitzera etorriko da Usurbila. Ikastolara joango da. Xua ateratzen denean, urtebete eta bost hilabete faltako dira Olatz eta Patxi irteteko. 2021eko ekainaren 19an gurasoak atera eta denok batera egon arte, nirekin egongo da.



Hiru urte betetzen dituenean, amonarekin bizitzera etorriko da Xua, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga preson alaba.

Une horretarako prestatzea komeni izaten dela aipatzen dute adituek. Zuen kasuan lanketa prozesu horretan zaudete?

Poliki goaz, haurrak bere ego-kitzapen prozesua egin dezan. Orain Xua egunez bakarrik ateratzen da nirekin. Udan agian gaez ere han geratuko da gurekin. Patxiren aitaren eta nire artean pisu bat hartu genuen han, haurrak erreferentziatzko leku bat izan dezan. Gero agian, hurrengo urteko udan, hona ekar dezakegu astebetetz, pixkanaka egokitzen eta jendea ikusten joan dadin. Baina Olatz eta Patxi dira gurasoak eta haiek markatzen dituzte pautak.

Egoera berezia eta gogorra izango da. Bilobarekin bizi ahalko zara, baina era berean Xua gurasoengandik urrunduko da.

Olatzek esaten zidan ez duela horretan pentsatu ere egin

XUA ETORTZEN DENEAN

“Oso ondo egokituko da hemen. Ez du arazorik izango nire ustez. Gainera, Usurbilen jendeak gai honetan babes handia ematen du”

nahi. Xua 24 orduz dago berekin. Bat batean lotura hori haustea, une gogorra izango da. Pentsa, Xua kalera ateratzen dugunean, gero ez dakizu amari nola heltzen dion, sinestezina da. Lehenengo aldiz atera genuenean, kalean eman genituen bi orduak negarrez aritu zen, ezin kontsolatu. Ni gainera ez ninduen ezagutzen. Zure biloba propioak ez ezagutzea eta bera ikusi ahal ez izatea gogorra da.

Hortik, denok prestatzen joan beharra ezta?

Ez da bakarrik haurra prestatu

behar, denok prestatu behar dugu. Niretzat adibidez, oso garrantzitsua izan da umea hartu dezakedala, berarekin ibili naitekeela ikustea. Bera zaintzeko gai naizela ikustea. Hori zen beste kezketako bat. Baina kezka hori guztiz gainditua dago. Lehengoan Gari ETB-ren “Ur handitan” saioko dokumentalean ikusten nuen...

Xua ikusiko zenuen.

Bai. Beraientzat ere begira ze momentu. Garik ere bi gurasoak ditu kartzelan. Gutxienik, kakotsa artean zortea dugu, Xua Usurbila etortzean urtebete eta bost hilabete geroago gurasoak hemen izango ditu. Baina bada jendea ez dakiena noiz irtengo den. Halere, uler-tzen dut presoek haurrak izan nahi izatea, munduko eskubide osoa dute. Kartzelan ego-teagatik ezin zaie kendu aita edo ama izateko esperientzia ederra.

“Gobernu frantziarra zerbait egiten ari dela dirudi”

NOAUA! Frantzian euskal presoak hurbiltzen haste-koak dira. Etorbizunean, estatu espainiarrean ere al-daketak egon daitezke?

Mari Karmen Anza: Gobernu frantziarra zerbait egiten ari dela dirudi, baina Espainiakoarekin ikusten da zer dagoen. Hori hala izateko guk baino gogo gehiago inork ez du, baina zalantza asko ditut, hain zaila ikusten dut. Guk halere hankak lur gainean. Olatz eta Patxi ezkondu eta Olatz Foncalentera eraman zutenean, bertan utziko zutela pentsatzen nuen. Baina berriz espetxetz aldatu zuten. Orduan soilik sentitu nuen ilusioa, eta pentsa, beraiek biak batera espetxe berean egon ahal izatea zen nire ilusioa. Atsekabe handia izan zen. Orditik gauzak seguru izan arte ez dut ezer sinesten eta ez zait gaizki joan. Nahiago dut pentsatu, bukaerara arte egin beharko ditugula bidaia luze hauek.

**Bizitzen ari zareten egoera-
ren baitan, azken urtea eta gero zer ospaturik baduzue-
la esan al daiteke?**

Urte honetan asko. Xuaren urtebetetzea ospatu behar da eta amona hemen dagoela, denok batera.

Ez nago ehuneko ehunean ondo baina nola egon naizen jakinik, oso ondo nago. Denetatik ikasten da. Esperientzia honek erakutsi dit adibidez, neure buruaz gehiago arduratu behar dudala.

Otar-Goxo
Elkarrizketak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Patxi
Patxi Uranga
Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera
☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KOMBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus



**Mondragon
Unibertsitatea**



**GURE
IKASLEEN
AHOTAN**

“Eredu dualak egoera ezberdinetara moldatzeko aukera ematen dizu”

Xabat Segurola Errondosoro zarautzarrak 19 urte ditu eta Mondragon Unibertsitatean Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (MyGADE) graduako 2. maila ikasten ari da Bidasoako campusean, Irunen.

Zergatik aukeratu zenuen Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Lehenik eta behin, gradu honek lana eta ikasketak aldi berean uztartzeko aukera eskaintzen duelako. Izan ere, behin gradua amaituta, enpresa-lerroa egiten dugunok hiru urte eta erdiko lan esperientzia izango dugu; alegia, ikasten duguna praktikan jartzeko aukera dugu enpresan. Eta, bestetik, irakasleekiko gertutasunagatik.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso esperientzia positiboa da nire garapen profesionalean, baina esfortzu handia suposatzen du unibertsitateko klaseez gain, enpresako praktikak eta etxeko ikasketak ditugulako. Baina, aldi berean, egia da enpresaren inplikazioa erabatekoa dela, eta beste langile bat bezala tratatzen naute.

Nola definituko zenuke Enpresagintzan jasotzen duzun ikasketeko metodologia?

Metodologia jarraitua denez, azterketak sarriago izaten di-



Xabat Segurola Errondosoro Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza ikasten ari da Irunen, Mondragon Unibertsitatearen Bidasoa Campusean.

XABAT SEGUOLA

“Irakasleekiko dugun gertutasuna da gehien gustatzen zaidan alderdia. Edozein zalantza izanez gero, eurengana jo dezakezu eta euren laguntza izango duzu”

tugu, baina horrek esan nahi du materia gutxiago ikasi behar izaten dugula azterketa bakoitzeko. Hori bai, azterke-

tak maizago izateak presioa ere areagotu egiten du, eta ezin izaten dugu ikasketa-erritmoa jaitsi. Nolanahi ere, iruditzen zait era honetan gehiago ikasten dela.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Irakasleekiko dugun gertutasuna da gehien gustatzen zaidan alderdia. Zergatik? Ikasleak ezagutzen dituztenez, bada egunerokotasunean, edozein zalantza izanez gero,

eurengana jo dezakezu eta euren laguntza izango duzu.

Zerbait hobetzeko? Campus txikia izanik, unibertsitate-giroa faltan botatzen dugu.

Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?

Onity enpresa multinazionalen ari naiz lanean, Oiartzunen. Hoteletako sarraila elektronikokoak fabrikatzen ditu enpresa honek, baita minibarrak, kutxa-gotor elektronikokoak eta energia kudeatzeko sistemak ere. Marketin sailean laguntzea da nire eginkizuna, gutxika-gutxika inplikazio handiagoa eskatzen duten lanak ginez.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Azken finean, unibertsitatean egiten duguna eta gero errealtatean egiten dena erabat ezberdina da, nahiz eta klasean lantzen ditugun zenbait materia enpresako egunerokotasunean baliagarriak izan. Dual sistemak errealtatearen ikuspegi bat ematen dit, baita jarraia aldetik egoera ezberdinetara moldatzeko aukera ere.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Hizkuntzak eta bidaiatzea betidanik gustatu izan zaizkit. Hortaz, bi hauek burutzeko aukera ematen didan lanen bat egitea gustatuko litzaidake, baina zeinek daki!

Inauteri Festarako egitaraua eta kartela prest

Badator eguneroko jantziak erantzi eta moztortzeko garaia. Dakizuenez, otsailaren 10erako antolatzen ari garen Inauteri Festan, pertsona ospetsuez bete nahi dugu Usurbil. Bi aste baino ez dira falta, kale giroa egun batez, itxuraldatzeko. Hasi prestatzen!

Hemen duzue jada, Inauteri Festaren harira, NOAUA! Kultur Elkarateak, Kantu Taldeak, Orbeldi Dantza Taldeak, Gaztelekuak, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak edota Bihurri ludotekak Udalarekin elkarlanean osatu dugun egitaraua. Dantzan hasiko ditugu inauteriak. Txaranga, kantu zale, nahiz erraldoi eta buruhandiekin batera kalean gora eta behera ibiliko gara otsailaren 10ean. Eta aurtengo berrikuntza; haurrentzako tailerrak antolatu dituzte Bihurri ludotekan.

Inauteri Festa 2018

Otsailak 9, ostirala

■ 19:30 Orbeldi Dantza Taldearen emanaldia herrian zehar. Irteera Oiarde Kiroldegitik.

■ 20:30 Azken saioa Mikel Laboa plazan.



“Bi aste baino ez dira falta, kale giroa egun batez, itxuraldatzeko”.

BERRIKUNTZAK

“Aurtengo berrikuntza; haurrentzako tailerrak antolatu dituzte Bihurri ludotekan”

Otsailak 10, larunbata

■ 12:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira frontoitik

abiatuta, bazkalordura arte ibiliko dira.

■ 12:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta.

■ 16:00 Karaoke festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!

■ 17:00 Herriko txistulariak, erraldoiak eta buruhandiak udaletxe paretik.

■ 17:30 Bingoa Gaztelekuan.

■ 18:00 Diskofesta Gaztele-

kuan.

■ 18:30 Burrunbazale txarangarekin kalejira frontoitik.

Otsailak 12, astelehena

■ 16:30 Inauterietako tailerrak Bihurri ludotekan.

Elkarlanean: Orbeldi Dantza Taldea, Usurbilgo Kantu Taldea, Bihurri ludoteka.

Bihurri ludotekako bazkidetza ordaintzeko garaia da

2018ko kuota ordaintzeko epea otsailaren 28an amaituko da. “Bazkide berriek 30 euro pagatu behar dituzte eta jada bazkide direnek 10 euro”.

Ordainketa ondoko kontu zenbaki honetan egin behar da: ES3230080259103545905527 (Rural Kutxa).

Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko, ludo-

tekako tabloira jo dezakezue edo ondoko helbidera mezua bidali:

bihurrieludoteka@gmail.com

Utziko dutenentzat oharra

Azkenik, ludoteka utziko duten gurasoei oharra: “ludotekako bazkide izateari uzten dioten familiei giltza itzuli dezatela eskatzen diegu”.



Bazkide berriek 30 euro pagatu behar dituzte; jada bazkide direnek 10 euro.

Zubietako Euskal Inauteriak prestatzeko lehen entseguak iragarri dituzte

Aurtengoan ere Euskal Inauteriak ospatuko dituzte zubietarrek lasartearekin batera otsailaren 3an. “Azken urteotan bezala Zubietatik Lasarte-Oriako plazara joango gara dantzan arratsalde pasa”, iragarri dute.

Ibilbide horretan zehar egingo dituzten lau zpabost dantza errepasatzeko bi entsegu saio irekietan parte hartzera deitzen dute. “Hasi prestatzen Txantxo jantzia eta apuntatu agendan entsegu saio egunak. Zubietatik talde ederra osatu baietz! Gonbita zabalik nahi duen herritar ororentzat”. Hemen dituzue entsegu saio egunak:

■ Urtarrilak 30, asteartea:

Ordua: 18:00-19:00.

Tokia: Zubietako Kaxkapen.

■ Otsailak 2, ostirala:

Ordua: 19:00-20:00.

Tokia: Zubietako Kaxkapen.



Zubietako Euskal Inauteri Festa otsailaren 3an ospatuko da. Lehen entseguak urtarrilaren 30ean egingo dute.

Euskal Inauteri Festa astebete lehenago ospatzen da

Otsailak 3, larunbata

■ 11:00-13:00 Sagardotegi kaletik abiatuta, elkarrekin zehar “Puska bila”.

■ 16:30 Zubietako plazan ekitaldia.

■ 16:45 Zubietatik Lasarte-Oriako Okendo plazara kalejira.

■ 17:00 Lasartearren harrera: Lasarteoriatarrek zubietarrei gonbidapen dantza eta zubietarren erantzuna.

■ 17:15 Zubietarren eta lasarte-oriatarren Senidetze dantzaldia.

■ 17:30 Kalejira herritik.

■ 19:00 Erromeria eta suaren ekitaldi berritua.



Otsailaren 3an, Zubietatik abiatu eta Lasarte-Oriako Okendo plazan amaituko da kalejira. Argazkia: Txintzarri.

■ Amaitzeko, txokolatada goxoa Lasarte-Oriako Okendo

plazan. Antolatzaileak:

Zubietako herria eta Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkartea.

Ikastetxeetan bezperan hasi ziren Donostia Eguna ospatzen

Donostia Egunari aurre hartuz, bezperan, urtarrilaren 19an entzun genituen danbor hotsak gure artean. Ikasleak danbor jole lanetan ikusi genituen ikastetxeetan. Zubietako Eskolak esaterako frontoian ospatu zuen saioa. Euria tarteko, Udarrégi Ikastolako HH-ko ikasleek Agerialde eraikinaren aterpean eta LH-ko ikasleek, ikastetxe atariko bidea hartu zuten.

Inauteriak begibistan

Inauteriei begira dira orain ikastetxeak. Otsailaren 9aren bueltan ospatuko dituzte mo-zorro festak.



Zubietako Eskolako ikasleak frontoian aritu ziren.



Udarrégi Ikastolako HH-ko ikasleak Agerialdeko eraikinaren aterpean aritu ziren. LH-ko ikasleak aldiz, ikastetxe atarian.

Lan poltsa deialdia Haur Eskolan

“Gurekin lan egin nahi?”. 0-3 urte arteko haurrak hezten lanean diharduen Usurbilgo Haur Eskolak lan poltsa osatu nahi du. Interesdunek deialdi honetan parte hartzeko epea zabalik dute jada, Udarrégi Ikastolatik aditzera eman dute-nez. Sartu udarrégi.eus atarian eta bertan duzuen galdetegia bete behar da. Galdetegiaren

hasieran ohartarazten dute-nez, “hemen azaltzen diren datuen frogak eskatuko da lan eskaeraren bat onartzen bada, nahiz eta aldi batekoa izan. Datuak ez badatoz bat hemen azaltzen direnekin, betirako kenduko da zerrendetatik eta ez du berriz aurkezteko aukerarik izango. Erantzun aurretik, ondo irakurri eskatzen dena”.



Deialdian izena emateko, udarrégi.eus atarira jo behar da.

Usurbilen ere, 'Euskaraldia' ekimenarekin bat

Euskara hitz egiten edo ulertzen dutenekin 11 egun euskaraz aritzea, horixe egitea proposatzen digute Euskal Herri osoan eta aldi berean, 2018ko azaroaren 23tik Euskararen Eguna, abenduaren 3ra, "Euskaraldia" ekimena sustatzen ari diren elkarte, eragile eta erakundeek.

Tartean, NOAUA! kide duen Euskaltzaleen Topaguneak eta Tokikom-ek, edota Usurbilgo Udala kide duen Udallerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA). Baita AEK-k, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jurlaritzak, Nafarroako Gobernua, Kontseiluak, UEU-k, Behatokiak, Irrien Lagunek, EHU-k... Eragile anitzek beraz. "Euskal Herri osoan eta elkarrekin arituta, gure egunerokoan eragin genezake", gogorarazten digute.

Lehen bilerak egin dira

Hainbat herri Euskaraldira baten hasiak dira jada. Euskararen erabilera sustatzeko ekimen desberdinak antolatzen lanetan dabiltza, tokian tokiko euskaltzaleak. Euskaraldia bere egin, eta herri bakoitzak bere errealitate soziolinguistikora eta errealitatera moldatzen.

Deialdi honen oihartzuna Usurbila ere heldu da. Usurbilgo Udala eta NOAUA! Kultur Elkartek deituta, euskalgintzan lanean dabiltzan udal, herri eragile desberdinetako ordezkari eta norbanakoak bildu ziren urtarrilaren 17an Potxoenean; Kantu Taldea, Etumeta AEK euskaltegia, Bota Punttuba Bertso Eskola, Udarregi Ikastola, gazte mugimendua, Usurbilgo Artixten Taldea...

Lasarte-Oriako esperientzia

Egitasmo hau Lasarte-Orian nola gauzatzen duten azaldu



Euskaraldia ekimenarekin herri ugari egin dute bat. Irudia: Usurbilgo Udala.

EUSKARALDIA

Datorren bilera irekia izango da, "herri osoari zuzendurikoa".

Otsailaren 7a asteazkena, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean

zuten AEK eta Ttakun Kultur Elkarteko kideek. Usurbilen zer egin daitekeen aztertzen

aritu ziren saio berean eta horretan segi nahi dute gainera, elkarlanean sakontzeko prestasuna eta gogoia adierazi baitzuten bertaraturikoek.

Datorren bilera, otsailaren 7an

Berriz biltzeko hitzordua finkatu zuten baita. Datorrena, bilera irekia izatea erabaki zuten, herri osoari zuzendurikoa beraz. Hemen duzue datorren bilkuraren hitzordua; otsailaren 7a (asteazkena), arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Kaleko erabilera, beherantz

Une ezin aproposagoan dator Euskaraldia Usurbila. Iaz argitaratu ziren, Usurbilgo Udalen enkarguz, Soziolinguistika Klusterrak 2016ko udazkenean euskararen kale erabilera neurtzeko eginiko azterketaren emaitzak. %54koa da euskararen kaleko erabilera udalerrri honetan. 2011n egin zuten aurreko neurketan %61,9koa zen. 8 puntu egin du behera honenbestez, euskararen kaleko erabilera.

"Ahobizi" edo "Belarriprest" izango diren sustatzaileen bila

Euskararen erabilera sustatzea helburu nagusi duen ekimenari buruzko argibideak euskaraldia.eus atarian dituzue. 11 egunez, inguratzen gaituzten senide, lagun, lankide eta abarrekin aukeran jarri dizkiguten bi roletako batean euskaraz aritzea proposatzen diete 16 urtetik gorako herritarrei. "Horretarako,

herriz herri antolatuko gara, baita enpresa, ikasketa zentro eta era guztietako elkarte zein entitatek ere. Nahi duzun lekuan izena eman, eta ondoren, zure ingurukoekin parte hartu proposatzen dizugun ariketa honetan". "Ahobizi" edo "Belarriprest" izatera gonbidatzen gaituzte:

■ Ahobizi: "Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezaguneri lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet".

■ Belarriprest: "Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut".

Eneko Furundarena: “Euskadiko Seleksioan parte hartzea erantzukizun handia da”

Urtarrilaren 2tik 7ra Galizan, Vigon eta Pontevedran antolatutako lurreko seleksioaren arteko Espainiako Eskubaloi Txapelketan parte hartu zuten Usurbil Kirol Elkarteko lau jokalarik, Euskadiko seleksioarekin. Emaiza ezin hobea izan zituzten. Infantil nesketan Udane Makazaga laugarren postuan sailkatu zen. Hirugarrenean, kadete mutiletan Eneko Furundarena. Eta lehen postuan amaitu zuten, infantil mutiletan Ekaitz Ibargoienek eta jubencil mutiletan Julen Nazabalek. Eneko eta Udanerekin bildu da NOAUA!

NOAUA! Zer eman dizu Galizako esperientziak?

Eneko Furundarena: Esperientzia oso polita bai eskubaloia- ren ikuspegitik, baita elkarbizitzaren ikuspegitik, han taldekoekin eman baitut aste osoa, oso gustura. Kirolaren ikuspegitik eskubaloian asko ikasi dut, aurreragorako balio didana. Lagun berri asko eman dizkit eta esperientzia oso positiboa izan da.

Euskadiko seleksioarekin joan zinen. Nolatan izan zarete hautatuak?

Uda bukaeran hasi ginen entrenamenduekin. Entrenamenduz entrenamendu jende berria sartzen joaten da. Jokalari garrantzitsuenak begiratzen dituzte, jokalaria gutxitzen doaz azaroa aldera eta entrenamendu bereziak egiten dira. Egun bateko entrenamenduak goiz eta arratsalde. Abenduan prestaketa moduan torneo bat jokatzen dugu, gero txapelketara joaten diren jokalaria bakarrik hartzen dituzte. Aurretik begiratuak dituzte eta gero hautatzen dituzte.



Usurbil FT kadete taldearekin, “lehenengo helburua, mantentzea zen. Orain gorantz ari gara begira”.

ENEKO FURUNDARENA

“Hasieran gaizki hasi ginen baina gero buelta eman genion. Hirugarren postua lortu genuen”

Zer maila du Euskadiko seleksioak?

Oso maila ona. Jokalari oso onak, Espainiako seleksioarekin ibilitakoak ere bai. Euskadiko seleksioan parte hartzea erantzukizun handia da, Euskadiko onenetako bat izaten jakitea ohore handia da. Hasieran gaizki hasi ginen baina gero buelta eman genion eta oso gustura. Hirugarren postua lortu genuen.

Presio puntua ere sentituko duzu?

Bai. Berez presio puntu hori ona da izatea, kirolaz gozatzeko.

Usurbil K.E.-ren maila ezberdinetako 4 usurbildar joan zarte.

Usurbilentzako ere ohore handi bat lau jokalari bertan izatea. Horrek Usurbilen ere gauzak ondo egiten ari direla esan nahi du. Hemen ere maila garrantzitsua dagoela eta hemen lana egiten ez bada, gero seleksiora joateko aukera handirik ezin duzu izan. Hemen ere lan ona ari gara egiten.

Galizako txapelketaren ostean, Euskadiko seleksioarekin lotura mantentzen duzue?

Gipuzkoako seleksioaren entrenamenduekin segiko dugu. Noizean behin torneoren batzuk egiten ditugu. Berriz jokalari berriak ikusten segiko dute hurrengo urterako.

Hau dena erraz uztartzen duzue Usurbil K.E.-ko taldearen partida eta entrenamenduekin?

Batzuetan egokitzen zaigu, goizean partida izatea eta arratsaldean entrenamendua. Entrenatzaileek ere badakite partida noiz dugun, eta halakoetan entrenamendu lasaixeagoa jartzen dute. Korrika

eta presaka ibili behar, baina gero atsedean hartzeko denbora izaten dugu. Merezi du.

Denboraldia nola doakizue?

Gustura. Hasieran pixka bat zaila egin zitzaigun, jokalari asko lehen urtekoak baikara. Euskal Ligan gaude, lehenengo aldia da. Denboraldia hasi denetik oso ondo moldatu gara Euskal Ligara. Azken partidak irabazi ditugu, partida zailak ere bai. Jokalari asko ari dira min hartzen, baina ondo moldatzen ari gara. Jokalari falta ere badugu, gutxi gara taldean, baina hori Usurbilen beti izan da hala.

Denboraldi amaierara begira zein da taldeko helburua?

Lehenengo helburua, mantentzea zen hasieran. Orain gorantz ari gara begira. Ia lehen postuetan sailkatzen garen. Hortik aurrera amets egitera, ia Espainiako Sektorera iristen garen. Gure buruari mugarik ez diogu jartzen. Aurreko urtean kadeteak Elx aldetik ibili ziren. Ni ere han egon nintzen eta esperientzia ederra da. Taldearentzat oso polita izango litzateke horra heltzea.

Taldeari segida ikusten diozu?

Bai. Lehenengo urteko jokalaria izanda, hurrengo urtean jada esperientzia izanda, askoz hobeto hasiko gara eta orduan aukera asko ikusten ditut. Denak oso gustura gaude bai entrenatzailearekin eta baita gure artean ere eta hori oso garrantzitsua da, taldean giro ona izatea alegia. Eta hori badugu, beraz mugarik ez diogu jartzen gure buruari. Amets egitea doakoa da eta gorantz begiratzen hasi behar dugu, bai Euskadirekin bai Espainiakora ere iristen bagara ederki. Lanegia segü aurrera.

Udane Makazaga: “Usurbildik asko joan izan dira selekziora, jende on asko dago”

NOAUA! Galizakoa zer moduzko esperientzia izan da?

Udane Makazaga: Denbora guztian eskubaloian arituta, pixka bat gogorra. Baina esperientzia polita. Denbora guztian lagun artean, adiskideekin.

Galizara joateko aukera nondik sortzen da?

Aurrez Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako selekzioetan parte hartzeko deialdiak egon dira. Hor jokalaria hautatzen dira eta lehenengo proba batzuk egiten dira. Gero entrenamendu saioetan ikusten joaten dira ia zer moduzkoak garen, eskubaloian ondo moldatzen ote garen. Hortik osatzen da taldea.

Gipuzkoako Selektziora sarritan deitu izan zaituzte.

Lehenago ere egon dira ikusteko ondo moldatzen garen talde horretan, taldean ondo funtzionatzen ote dugun. Béjarra joan ginen. Partida batzuk izan ditugu beste talde batzuen aurka.

Kasu honetan, Euskadiko selekzioarekin aritu zara. Zer moduz?

Oso esperientzia polita izan da. Beste herrietako jendea ezagutzen duzu, beste herrietako lagun berriak eta beste herri batzuk ezagutzen dituzu.

Beste kirol elkarteetako jokalaria ikusita, zer maila dagoela esango zenuke?

Denetarik. Adinean gorantz egin ahala, maila handiagoa egoten da taldeetan, baina txikitik ez da hain maila ona, baina giroa ona izaten da.

Usurbildar mardoa deitu ohi dute Gipuzkoako Selektzioan parte hartzera. Zergatik esango zenuke?



“Neskei animatzeko esango nieke. Gure adinekoekin, eskubaloian aritzea esperientzia polita litzateke”.

UDANE MAKAZAGA

“Oso esperientzia polita izan da. Beste herrietako jendea ezagutzen duzu”

Usurbildik asko joan izan dira selekziora, jende on asko dago.

Espero al zenuen Galizarako deitzea? Sari modukoa izango zen zuretzat?

Ez nuen espero baina jakin nuenean asko poztu nintzen, azkenean esperientzia berri bat baita eta ondo pasatzen da.

Gipuzkoako selekzioarekin jarraituko duzu?

Oraindik ez dakigu, uste dugu Gipuzkoan sartuko garela, orain Euskadin egon garenak. Horra iritsiko gara, eta aukerak ditugu berriz Gipuzkoako Selektzioarekin sartzeko.

Zer moduz daramazue erdibidera heldu den denboraldia?

Ondo gabiltza. Taldean ondo moldatzen gara, ondo erama-

ten gara. Talde bezala ondo funtzionatzen dugu.

Infantil nesken taldeari ibilbidea ikusten diozu etorkizonean?

Nik bai. Ondo gabiltza partidetan eta denean. Nik uste denoi gustatzen zaigula eskubaloia eta taldea ere denoi gustatzen zaigu nola dagoen osatua.

Egun izan ez arren, gustatuko litzaizuke Usurbilek berriz senior nesken taldea izatea?



Urtarrilaren 2tik 7ra Galizian izan ziren, Espainiako Eskubaloitxapelketan. Usurbil Kirol Elkarteko lau jokalaria hauek Euskadiko selekzioarekin aritu ziren.

Gustatuko litzaidake, fama asko izaten du senior mailan izateak eta ona izateak. Polita da beraien partidak izatea.

Talde kideek eskubaloian jarraitzeko asmoa dute?

Batzuk, denbora falta izaten dute, baina askori ikusten diet jarraitzeko asmoa.

Eskubaloian nolatan hasi zinen?

Txikitatik egon naiz ikusten nire ahizpa eskubaloitartetan. Eskubaloia ez nekien zer zen ere, baina hirugarren mailan eskubaloia probatzen hasi ginen Eskola Kirolean. Gustatu zitzaidan eta honaino iritsi arte jarraitu dut. Oraindik gustuko dut eta jarraituko dut kirol honenkin.

Jokalaria faltak baldintzatu zuen senior nesken taldea. Zuek nola zabilzate?

Jendea falta zaigu oraindik. Etorri dira txikiagoak, zaharrago batzuk jaitsi dira gure kategoriarara. Neskei animatzeko esango nieke. Gure adinekoekin, eskubaloian aritzea esperientzia polita da.

Taldea da erronka?

Denek kirolaz gozatu ahal izatea eta ondo pasatzea.



12€

AISIPLANA

Bazkaria edo afaria
+ zinemarako sarrera.



9,50€

PARTYPLANA

VIPS Smart-en umeentzako menua
+ zinemarako sarrera (Menua soilik
12 urte baino gutxiago dutenentzako).



12€

SUPERPLANA

Txikiguay-rako denbora
+ zinemarako sarrera.



23€

BEAUTYPLANA

Ile-apaindegia + manikura
+ ekitaldi makillaiea.

URBILBOX, markoan ipintzeko moduko planak.

Gozatu Urbilen zure aisialdi planez, deskontuekin.



www.urbil.es



Aginagako Eliza Zaharrean, Kezka eta 1280 Almas taldeen kontzertua

Aginagako gazteek kontzertu iluntzea antolatatu dute larunbat honetarako, Eliza Zaharrean. Biltokiari erabilpen zabalagoa eman nahi diote, eta testuinguru horretan antolatatu dute urtarrilaren 27ko hitzordua.

Gunea berpizteko, urte amaieran Eliza Zaharrean inguruko liburuxka ere argitaratu zuten. Bertan, "Eliza Zaharrean historia eta ekitaldien gainbegiratu azkar bat egin nahi izan dugu. Etorkizunean ere, iraganean babestu dituen adina ekintza edota gehiagoren plaza izan dadin eta altxor



Argazkian, Kolonbiako 1280 almas musika taldeko kideak.

honi merezitako garrantzia eman diezaiogun. Honenbestez, dei egiten diegu herritar zein kultur arloko edozein

eragileri, beraien ekintzaren bat bertan burutu nahi izanez gero, gurekin harremanetan jartzera".

Urtarrilak 27, larunbata, arratsaldeko 19:00etatik aurrera

■ 19:00 Kontzertuak Aginagako Eliza Zaharrean: "1280 almas" (Kolonbiako musika taldea) eta Kezka (Usurbilgo musika taldea).

■ Sarrera: 5 euro.

■ Informazio gehiago:

Facebook: Aginagako Jaiak

Instagram: Aginagako Jaiak

aginagaherria@gmail.com

■ Antolatzailea: Eliza Zarra.

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak, Aginagan eta Usurbilen

Hamargarren ediziora heldu da, Euskal Herri osoa musean jokatzeko jartzen duen txapelketa nazionala. 2009an abiatu zutenetik gorantz egin du nabarmen parte hartzeak.

"Gure herriak bizi duen zati-keta administratiboaz gaindik", nazio kontzientzia indartzea helburu duen ekimen honen estreinako edizioan 1.120 bikote lehiatu ziren. Iaz, 2.000. Aurtengo txapelketa ere abian da jada, herri mailako kanporaketa saioak ospatzen ari dira. Aginagan eta Usurbilen ere saio bana antolatatu da asteotan:

Urtarrilak 26, ostirala

■ 22:00 Aginagako kanporaketa saioa, Atarialde elkartearen. Izen ematea: 21:30-22:00.

Laguntzaileak: Aginaga Sagardotegia eta Bruño mariskoak.



Ostiral honetan, Aginagako Atarialde elkartearen.

Otsailak 2, ostirala

■ 22:00 Usurbilgo kanporaketa Aitzaga Elkartearen. Izen ematea: 21:30-22:00.

Laguntzailea: Saizar Sagardotegia.

Hurrengo faseak:

■ Otsailak 24: zazpi herrialde-

tako kanporaketak.

■ Martxoak 10: final nazionala Uztaritzen (Lapurdi).

Finaleko sariak:

■ Guztira, 50.000 euro sarietan.

■ Oroigarria parte hartzaile bakoitzarentzat.

■ Txapeldunentzat, garaikurra,

3.000 euro eta Karibera bidaiaria lagunentzat.

■ Txapeldunordeentzat, garaikurra, 1.500 euro eta kanariar uhartera bidaiaria bi lagunentzat.

■ Sari gehiago 3-16 postu artean sailkatzen diren bikoteentzat.

■ Informazio gehiago:

ehmus.eus

Aurrematrikulazioa ikastetxeetan

2018-19 ikasturterako aurrematrikulazioa bideratzeko epea zabaltzeaz da Udarrerri Ikastolan, Aginaga eta Zubietako Eskoletan. Bi asteko tartea egongo da: urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra. Otsailaren 8ra arte, aurrematrikulazioa Internet bidez egin asmo dutenentzat.

Hitzartu diruz laguntzeko deia egin dute

Hitza hartu eta adostera animatzen dituzte gipuzkoarrak Hitzartu parte hartze prozesuko deitzailerek, azken egunotan argitaratu duten bideoko aldarria baliatuz: “Ez diezagutela adarrik jo! Hitzartu”.

Bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak ageri dira, 2016ko ekainean egin zuten agerraldi batean, 2017-2030 urtera arteko Gipuzkoako Hiri Hondakinen Plagintza lantzeko prozesu parte hartzailea iragartzen. Egin beharrekoa zutena, baina egin ez zutena azkenean. “Plan hori ez zein inoiz garatu. Tiradera batean geratu zen”, gogorarazten dute Hitzartu ekimeneko sustatzaileek.

Foru Aldundiak egin ez dutena gipuzkoarrak egitera doaz



Diru ekarpen gehiagoren premian da Hitzartu herri ekimena.

orain, aurrekaririk gabeko parte hartze prozesuaren bidez. “Jendarte zibilak egingo du Plana eta Partaidetza Prozesua” iragarri dute Hitzartu ekimeneko sustatzaileek. Garaiz gabiltzala gogorarazten digute.

Horretarako ordea laguntza beharrean dira. Hitzartu diruz

lagundu eta Hitzartukide izatera animatzen gaituzte. “Sarreraren prezioan. Sar zaitez hitzartu.eus atarian eta zure ekarpen ekonomikoa egin ezazu”.

Diru ekarpenak nola egin

Herritarren laguntza behar du prozesuak aurrera egingo

badu. Helbide honetan, itsulapikoa.eus atarian sartuta egin ditzakezue 5, 10, 20 edota 50 eurotik gorako diru ekarpenak. Aste hasierarako 7.000 euro bilduta zituzten. Baina laguntza gehiagoren beharrean da egitasmoa. Diru ekarpenak bide honetatik ere egin ditzakezue: ES05 3035 0140 33 1400031124

“Hitzartu Kulturala”

“Gipuzkoan hondakinen kudeaketarekin dugun arazoaren konponbiderantz eramango gaituen prozesua diruz laguntzearen truke, Hitzartukide bihurtuko gara. Batetik abiatzearen prozesuan parte hartu eta antolatuko diren tailerretan lehentasuna izateko aukera eskuratuko da”. Honez gain, baita “2018an Hitzartu Kulturala auzolanean eskainiko diren ekimenetara dohainik gozatzeko aukera” ere.

Gure Esku Dagok mobilizazio handi bat egingo du ekainean

Euskal Herrian inoiz egin den mobilizazio handiena aurkeztuko du Gure Esku Dagok larunbat honetan, urtarrilaren 27an, Donostiako Eureka Zientzia Museoa. Adi egoteko deia luzatu dute Usurbilgo lan taldeak. “Adi! Larunbatean, Euskal Herrian inoiz egin den mobilizaziorik handiena iragarriko dugu. Usurbildarrok ere indarrez helduko diogu erronkari! Hastera goaz!”, adierazi du Usurbilgo Gure

Esku Dagok sare sozialen bidez.

Herritarren Ituna

Ekainaren 10erako finkatu duten mobilizazioaren aurkezpena streaming bidez jarraitzeko aukera izango da Gure Esku Dagoren ohiko komunikazio bideetatik. “Aurkezpen berean azalduko dira ere Herritarren Ituna osatzeko emango diren pausoak, zehaztasunekin”, aurreratu dute.

Galdeketa gehiago egingo dira

Ekainaren 10eko mobilizazioa, Herritarren Ituna eta aurten ospatuko diren herri galdeketa izango dira erabakitze eskubi-dearen aldeko herri mugimenduaren 2018rako lan ildo nagusiak, “EtorkiZUNA” aldarripean bideratuko duten kanpainaren baitan. Urte berri honetarako plangintza, Gure Esku Dagok azaroa amaieran Agurainen (Araba) egindako Bazkideen Ezohiko Batzarrean aurkeztu



eta onartu zuten.

Informazio gehiago:

gureeskudago.eus

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza s.l.

606 37 21 05
Atallu nol 28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Gurasoak ikastolan



Euskal Herritik kanpo jaiotako gurasoen bisita jaso zuten LH4 mailako ikasleek.



Gure gelako guraso batzuk Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira. Beraien herrialdea eta ohiturak ezagutzeko ikastolara gonbidatu genituen.

Alexandra eta Darwin Ekua-dorrekoak dira, Santo Domingo eta Ibarraoak hain zuzen ere. Toby Ingalaterran jaiotakoa da eta Graciela Txiletarra da.

Oso gustura egon ginen eta lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu.

LHko 4.mailako ikasleak

Bidaien diaporama lehiaketa

Urrietako Udalak Buruntzaldeko 16 urtetik gorako gazteei zuzenduriko bidaien diaporama lehiaketa antolatu du. Txapelketan parte hartzeko, prestatu egin duzun bidaiari buruzko 30-60 minutuko diaporama saioa eta solasaldia, "kontaiguzo nolakoa izan zen esperientzia horietako bat, nola antolatu zenuen bidaiari, zergatik egin zenuen toki horretarako ibilbidea eta han zer ikusi eta ikasi zenuen".

Izen emate orriak eskuragarri izango dituzue otsailaren 9ra arte, Urrietako Lekaio kultur etxean, bertako Gazte Informazio Puntuan eta urnieta.eus webgunean.



16 urtetik gorako gazteei zuzendua dago lehiaketa.

Orriak beteta, whatsapppe zuzenduriko bidaiari buruzko 30-60 minutuko diaporama saioa eta solasaldia, "kontaiguzo nolakoa izan zen esperientzia horietako bat, nola antolatu zenuen bidaiari, zergatik egin zenuen toki horretarako ibilbidea eta han zer ikusi eta ikasi zenuen".

Sari ugari

Otsaila amaieran 5 lan hautatu eta urnieta.eus atarian, sare sozialetan eta irabazleei ere jakinaraziko zaie. Txapel-dunek diaporama eskaintze-

ko aukera eta 100 euroko sari bana jasoko dute.

Honez gain, Kulturietak osatuko duen epaimahaiak 300 euroko sari bat emango du eta 200 euroko ikuslearen saria ere egongo da. Ikuslearen saria, martxoaren 19tik 23rako astean izango diren diaporametak joaten diren lagunen puntuazioak erabakiko du.

"Gorputzaldiak" egitasmoa ezagutzeko aukera

Udarregi Ikastolan LH-n abian duten "Gorputzaldiak" egitasmoa gurasoen artean ezagutzera eman asmoz, ama eta aitentzako saio praktikoa antolatu dute otsailaren 3an, 10:00-12:00 artean ikastolako jangelan.

Izen-ematea zabalik da

Urtarrilaren 29ra arte eman daiteke izena gorputzaldiak@udarregi.eus helbidean edo 943 36 12 16 telefono zenbakian.

Gaitasun sozio-afektiboak garatzeko egokia

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, haurren zaintza zerbitzurik ez da izango. Proiektu honetan, gorputz adierazpena lantzen da eta gorputz adierazpenaren bidez, gaitasun sozio-afektibo ezberdinak barneratzen dituzte ikasleak. Saio honetan, gaitasun sozio-afektiboetako baten lanketa bideratuko da. Arropa erosoekin eta ondo pasatzera agertzeko gonbita luzatzen dute.



Otsailaren 3an erakustaldi bat antolatu dute gurasoentzat.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 RPS: 28/17 USURBIL

‘Sagarrondotik Sagardora’, ikastaro praktikoa

Azken urteon ildotik, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak “Sagarrondotik sagardora” zikloa antolatu du otsailetik irailera. Zortzi saio aurreikusi dituzte, ikastaro praktikoa honen baitan. Ikastaro osoa Potxoenean burutuko da, kimaketa praktikak izan ezik, hauek “bertako sagastietan egingo dira” ohartarazi du antolakuntzak.

Ikastaro praktikorako izen ematea zabalik dago. Gogoan izan, saio guztietarako eman daiteke izena, edota bestela baita saio solteetarako ere. Segidan dituzue xehetasunak:

Saioen egutegia:

- Otsailak 10: “Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketara”, Aitor Etxeandiarekin.
- Martxoak 3: “Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak”, Aitor Etxeandiarekin.
- Martxoak 17: “Fruitu arbolaren udaberriko edo zotzeko



Aditu ugari hurbilduko dira Potxoenean. tartean, Egoitz Zapiain kalitate arduraduna.

IKASTAROA, HASTEAREN

Otsailaren 10ean hasiko da ikastaroa, ‘Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketara’ hitzaldiarekin. Saio denak larunbatarekin egingo dira, Potxoenean

txertaketa”, Josu Osarekin.

■ Apirilak 7: “Garbitasuna sa-

gardoaren kalitatearen lagun. Sagardoa egurrezko ontzietan eta sagarrondoaren bizimodua”, Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondorekin.

■ Apirilak 21: “Ilargia eta egutegi biodinamikoa”, Xabier Akizurekin.

■ Ekainak 2: “Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak”, Aitor Etxeandiarekin.

■ Uztailak 14: “Fruitu arbolaren udako edo begiko txertaketa”,

Josu Osarekin.

■ Irailak 8: “Sagarraren heldutasun analista. Etxean sagardoa egiteko hastapenak”, Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiainekin.

Saioen ordutegia: 09:00-13:00. Saioen tokia: Potxoenea.

Prezioa: 96 euro ikastaro guztiko saioak, Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan. Egun solteetan ere izena eman daiteke. Horretarako Alkartasuna Kooperatibarekin harremanetan jarri.

Oharra: kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira.

Izen ematea eta argibide gehiago jasotzeko:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak

Antolatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea, Sagarki, Bizi Sagardoa eta Usurbilgo Udala.

Zumaia-Saturraran, Gipuzkoari Birako 2. etapa

Andatza Mendizaleen Kirok Taldeak Gipuzkoari bira emango dio aurten etapaka. Urtarrilaren 14an Usurbil-Zumaia bidea osatu zuten. Otsailaren 11rako iragarri dute bigarren etapa; Zumaia-Saturraran artekoa:

- Eguna: otsailak 11, igandea.
- Abiatzeko hitzordua: 07:30ean Oiardo Kiroldigitik autobusez.
- Ibilbidea: 22 km.
- Izen ematea: 10 euroko ordainketa egin otsailaren 7a baino lehen, Andatza M.K.T.-ren kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 30080259163005430321 Kutxabank: 2095506907106848 9805



Otsailaren 11n osatuko dute ibilbidea. Bertan parte hartzeko, otsailaren 7a baino lehen eman behar da izena.

- Oharrak:
 - Plaza mugatuak.
 - Otordua ibilbidea amaitutakoan egingo dugu.
 - Janaria norberak eraman behar du.
 - Edaria Andatza M.K.T.-k eramango du.

-Derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea.

Informazio gehiago:

andatza.com
andatza@hotmail.com
Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Eguneko Zentroaren garraio zerbitzua, DYA-Gerturen esku

Orain arte bezala, DYA-Gertu Fundazioak kudeatzen segiko du gutxienik beste bi urtez, Eguneko Zentroko erabiltzaileen joan etorriak ahalbidetzen dituen garraio zerbitzua. Usurbilgo Udalak jakitera eman duenez, lizitazio deialdira eskaintza bakarra aurkeztu da, aipatu fundazioarena eta “DYA-Gertu pleguetan zehazten ziren baldintza guztiak bete ditu”.

Ibilgailu egokiarekin

Garraio lanetarako baliaituko den ibilgailua, mugikortasun urriko pertsonak garraiatzeko egokitua dago.

Igande honetan, Irisasi BTT proba

Gorantz doa Irisasi BTT "Hotzak akabatzen" ekimenerako izen emate kopurua. Jada 300dik gora kirolarik bideratu dute inskripzioa urtarrilaren 28an ospatu eta bizikleta gainean egingo den mendi probarako, tartean 40tik gora usurbildarrek. Gainerakoan, Donostialdea, Buruntzaldea, Urola Kosta, nahiz Hego Euskal Herriko txoko desberdinetako kirolariak daude apuntatuta.

Urtarrilaren 28an ospatuko den mendi bizikleta gaineko probarako izena, kirolprobakom atarian sartuta eman dezakezue hilaren 26ra arte. Federatuek 18 eurotan, federatu gabeek 20 eurotan. Proba egunean bertan, 8:45 arte ere izen emateko aukera izango duzue 25 eurotan. Apuntatzen diren lehen 500 lagunek mallota ja-



Igandean, goizeko 8:45ean amaituko da izena emateko epea.

soko dute opari. Urtarrilaren 28ko proban, zailtasun maila ezberdinetako hiru ibilbideren artean hautatu ahalko dute parte hartzaileek. Goizeko 9:00etan irtengo dira Mikel Laboa plazatik.

Antolakuntzaren oharra:

kirol ekimen honetan parte hartu nahi duten 16 urtetik beherakoak Irisasi BTT-koekin hartuemanetan jarri behar ko dira, irisasibt@gmail.com helbidera idatziz.

Informazio gehiago, andatzamendizale.info atarian.

Eskubaloi partidak Oiardo Kiroldegian

Urtarrilak 27, larunbata

- 09:30 Benjamin topaketa: Udarregi-Udarregi
- 11:15 Infantil neskak, Gipuzkoa: Udarregi A-Urnieta
- 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Basauri
- 17:30 Kadete mutilak, Territoriala: Usurbil K.E.-Bergara

Futbol partidak

Haranen

Urtarrilak 27, larunbata

- 10:00 Infantil neskak: Usurbil F.T.-Santo Tomas Lizeoa
- 11:30 Kadete neskak: Usurbil F.T.-Sporting de Herrera

Haimar Zubeldiaren omenaldiko bideo berri bat zabaldu dute sare sozialen bidez

Herri omenaldi hunkigarria egin zitzaion Haimar Zubeldiari joan den azaroaren 18an. Egun haieran eginiko ekitaldiak bidez grabatu zituen antolakuntzak, Haimar Zubeldia Taldeak. Tartean, ospakizun eguna abiatzeko, Haimarrekin 80 bat lagunek Andatzara bizikleta gainean egindako mendi buelta. Joakin Pagola herritarrek grabatu eta eginiko muntaia laneko irudiak argitaratu berri dituzte sare

sozialen bidez.

Sarean ikusgai

Toki hauetatik ikus dezakezue "Haimar Zubeldia, 20 urte baino gehiago bizikletan" ikus-entzunezkoa, Zubeldiaren senide, koadrila edota bidelagun izan dituenen lekukotzez osatua:

Youtube: Haimar Zubeldia

Taldea

Twitter: @AupaHaimar



Besteak beste, omenaldiko irudiekin osatu dute bideoa.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ARRANDEGIA
PELLO
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA 9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUN 17:00-19:30
ORDUTEGI ETA TELEFONO BERRIA!
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94 USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Ge-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

hinez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Pisua edo gela alokatzen da Santuenean. Oso ondo dago. 667 912 307 / 626 428 463 / 607 668 603

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garaiek

Peugeot Partner bat salgai. Diesela. 110 zaldi. 2009. urtekoa. 140.000 km. 665 71 53 21

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabixi 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolfer tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat

erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 ziilind. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zubietan, goizetan etxeko lanak egiteko emakume behar da. Lanaldi erdia. Tel. 695 783 202

Zerbitzari bat behar da, karta-rekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziakin. Tel. 632 576 258

Pertsona helduak zaintzen lan egingo lukeen mutil bat naiz. Larunbat eta igandetan, esperientzia daukat. Tel. 632 793 747

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garaiek, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.



Zorionak!

Urtarrilaren 27an
8 urte beteko
dituzu. Zorionak
Haizea eta aze
festa!!!
Muxu pila.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Espe-rirentziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna mo- duan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, anima- liak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina gar- bitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona hel- duak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatze- ko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskain- tzen da oporretan umeak zain- tzeke. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, kla- se partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaz- teleran, ingelesean eta frantse- sean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, or- duka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenerik ostirale- ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, or- duka, gauetan... edoizen modu- tan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketari lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak

zaintzeko edo garbiketari lan egi- teko. Interna moduan, orduka edo gauzez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lan- ean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke or-

duka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukal- dearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxee- tan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona hel- duentzat, edo etxetik atera ezin duentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak

zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiket- an, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egin- go nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila da- bil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zain- tzen edo garbiketari lanetan. Bere- hala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo hel- duak zaintzen edo etxeak garbi- tzen. Tel. 632 587 450.

BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko pertsona baten bila gabiltza Aginagan. Batxilerra lehenengo maila. Matematika eta kimika. 609 367 952.

Klase partikularrak eskaintzen dira, akademikoak eta gitarrakoak. Interesatek deitu zenbaki hone- tara: 634 412 687 (Josu).

Udarregi Ikastolan klase partiku- larrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo auto- bus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an kaketua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta es- kubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxe- ko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko ni- tuzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arra- zakoak saltzen dira. Telefono zen- bakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pati- neteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehe- netik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 25	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 26	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 27	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 28	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 29	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 30	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 31	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Urtarrilak 25 - Otsailak 04

Osteguna 01	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 02	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loloia 9. Lasarte
Larunbata 03	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 04	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki- ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urtarrila

26 ostirala

- **Ostiraletako zinea: "Girlhood".** 19:00etan Sutegiko auditorioan.
- **Elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- **EH Mailako Mus Txapelketa.** Kanporaketa Aginagan. Ikus 19 or.

27 larunbata

- **Erraustegiaren goi-tentsioko linearen aurkako mendi martxa.** Ikus 22. or.
- **Kantu jira.** 12:00etan, Mikel Laboa plazatik.
- **Kontzertua** Aginagako Eliza Zaharrean. 19:00etatik aurrera. Ikus 19 or.

28 igandea

- **Irisasi BTT 2018 "Hotzak akabatzen...!".** 09:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Ostiral honetan Sutegin, 'Girlhood' filma jatorrizko bertsioan

Udarregi Ikastolako DBH4-ko ikasleek apirilean Bartzelonara egingo duten bidaia gastuei aurre egiteko abiatu zuen azaroan, "Ostiraletako zinea" zikloa Sutegin. Urtarrileko proiektzioa ohi baino astebete beranduago dator. Ostiral honetan, "Girlhood" filma eskainiko dute, euskarazko azpтитuluekin:



2014ko film honen jatorrizko hizkuntza frantsesa da baina euskarazko azpтитuluekin eskainiko dute Sutegin.

Urtarrilak 26, ostirala

- Ordua: 19:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Sinopsia: "Marieme ez da eroso bizi, baina hiru neska ezagutu eta bizimodua aldatuko zaio. "Izena eta janzkera aldatu eta ikastetxea utziko du bandan onar dezaten, askatasunerako bidea izango den itxaropenarekin".

- Sarrerak: egunean bertan 2 euro.
- Iraupena: 112 min.
- Antolatzailea: Udarregi Ikastolako DBH4-ko gazteak.
- Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Larunbateko kantu-jira, eguerdiz

Ohi baino goizago dator 2018 urteko lehen kantu-jira. Eguerdiz ospatuko baita. Larunbat honetan, urtarrilak 27, eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Gogoan izan, astelehenero biltzen dira ikastaroko kantu zaleak, 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan.



12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Datozenak

Otsailaren 4an, 'Igelen erresuma' filma Sutegin

Haur eta gazteentzako proiektio bana izango dugu datozen bi asteburuotan Sutegin.

- Urtarrilak 26, ostirala: 19:00 "Girlhood". Sarrera: 2 euro. Antolatzailea: Udarregi Ikastolako DBH4-ko gazteak.
- Otsailak 4, igandea: 17:00 "Igelen erresuma". Sarrera: 3 euro. Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza G.E.

Usurbilgo jaiak antolatzeko lehen bilera

Bilera irekia, herritar nahiz eragileentzat. Lehen saio honetan, jai egunak finkatu eta bertaratzen diren ideia edo proposamenak biltzen hasiko dira.

- Eguna: otsailak 6 astearte.
- Ordua: 18:00.
- Tokia: Potxoenea.
- Deitzailea: Jai Batzordea.



ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Inñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825



AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuaren zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

• Eskola orduz kanpoko kirola.

• Goizeko gela (8:00-9:30)

Izena emateko epea: **urtarrilaren 29tik**
otsailaren 9ra

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil

baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net



ikastolenelkartea

Udarregi 50

IKASTOLA

Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua. Konfiantzaren Pedagogia egitasmo pedagogikoa garatzen dugu 3-6 urteko haurren geletan.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- **KiVa Ikastola gara:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean dugu 2017ko urtarriletik aurrera beste 51 ikastolekin batera.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: Bertan sukaldatutako menuak (adin guztietarako) eskaintzen ditugu, herriko eta inguruko ekoizleen elikagaiak zerbitzatzuz bazkaltiarrentzat. Honela, herriko ekoizleen produktuen kontsumoa sustatzearekin batera, elikadura arduratsu eta osasuntsuaren baloreak indartzen ditugu.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake.

50 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus